

TOLOSA

Tolosa Gipuzkoako udalerrria da. Tolosaldea eskualdeko hiriburua da, Donostiatik hogeita bost kilometrora gutxi gora-behera dagoena. Gaur egun 19000 biztanle inguru ditu, eta bertako herritarrak Tolosarrak dira.

Tolosako ibai ezagunena Oria ibaia da, Orion isurtzen dena, baina baditu beste hiru ibai, Araxes bata eta Berastegitik eta Hernialdetik datozen ibaiak beste biak. Tolosa ibai bilgune garrantzitsua dela argi dago, eta herria ibaiaren inguruan eraikia dagoenez behin baina gehiagotan uholdeak eragin dituzte euri zaparrada handiek. Horrez gain, sei mendiz inguratua dago, hauek dira Ernio, Mendikute, Erroizpe, Herniozabal, Aldabamendi eta guztietan ezagunena, Uzturre. Beraz, ibai eta mendiek Tolosarren egitekoa baldintzatu egiten zutela eta dutela ondoriozta daiteke. Tolosan Gaztelaraz eta Euskaraz hitz egiten da, besteak beste, baina hizkuntz filologoen diotenez ingurune menditsuak sortzen dituen mugak izan daitezke euskara hainbeste babestu izana Tolosan aspalditik.

HISTORIA

Herriak Tolosa izena XIII. mendean Alfonso X.a Gaztelakoa Jakitunaren eskutik hartu zuen Gaztelak itsasorako bidea zabaltzeko asmoarekin bat. Tolosa Gipuzkoa eta Nafarroa elkartzeko bide nagusian sortu zuten herri arteko kontrola areagotzeko, eta honek onura hainbat ekarri zizkion herriari. XV. mende erdialdean herri harresia eraikitzea erabaki zuten babeserako, izan ere, Nafarroa eta Gipuzkoa arteko ia denak Tolosatik igaro beharra zuen.

XVI. mendean Tolosan sute batek herri oso suntsitu zuen ia. XVII. mendean gaur egun herriarentzat funtsezkoak diren eraikin hainbat eraiki zituzten sutearen ondoren, Udaletxea besteak beste. XVIII. mendean hondamendi asko gertatu ziren Tolosan, aipagarrienak sute eta uholdeak. Gaur egun oraindik bizirik dagoen Zerkausia eraiki zuten mende honetan, merkaturako aterpea, harresiari erantsita.

XIX. mendean gerra garai sutsua izan zen Tolosarentzat, hala ere, Tolosak 1844tik 1854ra Gipuzkoako hiriburu izatea lortu zuen hamar urtez Donostia hiriburu bihurtu arte. Garai hau

aberatsagoa izan zen Tolosarentzat eta orduan eraiki zituzten Kultur Etxea, Beotibar pilotalekua, Gipuzkoako Diputazioa eta beste hainbat eraikin. XX. mendearekin bat immigrazioa etorri zen eta orduan sortu ziren zinema, Zezen Plaza, Artxibo Probintziala, kirol elkarteak, sindikatuak, tranbia elektrikoa, etab.

XX. mendeak hasiera aberatsa izan zuen Tolosan Euskarari dagokionez. Ixaka Lopez Mendizabal Tolosarra *Eskualzaleen biltzarra* eta *Euskaltzaindia* erakundeen sortzaileetako bat izan zen. Horrez gain, euskarazko eta euskararen aldeko 23 liburu eta prentsako artikulua asko argitaratu zituen bere bizitzan zehar. 1922 urtean Tolosako lehenengo Ikastola sortu zen, eta bera bultzatzaile eta sortzaile nagusienetako bat izan zela diote. Xabier semea bertan matrikulatu zuen. 1925ean *Xabierto* liburu ezaguna argitaratu zuen eskoletan euskaraz ikasten ari ziren umeen beharrak asetzeko helburuz, beti ere bere semearen inguruan idatziz. Gerraren eraginez erbestera alde egin behar izan zuen Euskal Herritar beste asko bezala. Honek ez zuen bere Euskaltzaletasuna eten eta bere lanak Buenos Airesen, Argentinan, argitaratzeraino iritsi zen Ixaka.

II. Errepublika, Gerra Zibila eta Diktadura Frankistarekin bat etorri zen Euskararen zentsura. Lehen esan bezala, jende askok alde egin behar izan zuen Euskal Herritik eta Tolosan zegoen Ikastola bakarra itxi behar izan zuten. Euskara kalean erabiltzea ez zitzaion inori burutik pasa ere egiten, herritar guztiak ziren beldur, beraz, euskararen erabilera etxe gutxi batzuetara bakarrik mugatu zen. Euskalgintza esparruko gauza guztiek errepresio gogorra jasan zuten, eta euskararen beherakada izugarria izan zen Euskal Herri osoan.

1936ko abuztuaren 11n, indar Frankistek Tolosara iritsi ziren eta Euskal Kultura eta Euskarazko liburu guztiak herriko plazan erre zituzten. Frankistek liburuen erreketara baino lehen ba omen zekiten Tolosan Euskararen eta Euskal Kulturaren aldeko jarrera sutsua bazegoela eta bazirela honen inguruko mugimendu politiko eta kultural hainbat. Beraz, Tolosa Frankisten helburu izan zen denbora luzez.

IKASTOLAREN HASIERA